

{ datorrena }

Gorka ELEJABARRIETA

# Beti errebelde

**M**aiatzaren 18an tokiko hauteskundeak izan ziren Irlandako iparraldean. Sinn Feinek berriz ere irabazi zituen eta Irlandaren batasunaren aldeko beste aurrerapauso bat egin zuen, beraz. 25 urte bete dira 1998ko apirilaren 10ean Ostiral Santuko bake akordioa sinatu zene-tik. Biolentzia politikoaren erabilpenari amaiera jarri zitzaion, gatazkaren arrazoi eta ondorioei konponbi-de politikoa emanez. Akordioaren inplementazioa ez zen erraza izan eta 25 urte hauetan akordio berriak behar izan dira, konplexuak eta zailak guztiak. Orain-dik ere bide horretan jarraitzen dute.

1998ko Irlanda eta gaur egungo Irlanda ez dira he-rrialde berbera. 1998ko Sinn Fein eta gaur egungo Sinn Fein ere ez dira berak. Sinn Feinen 25 urteko trantsi-zioa eta Irlandarena eskutik doaz. Nazio askapen mu-gimendu errebelde eta errepublikano bezala sortu ze-nak ez du bere arima galdu. Horiek dira egun ere bere ezaugarri nagusiak. Azken urte luzeetan sektore eta pertsona berri asko erakarri ditu. Bere herrialdeko insti-tuzio nagusi gehienak go-bernatu ditu. Eta hori ez da lortzen, ez dago aurrera era-materik, alderdiaren estruk-turak eta programak itxiz. Ez dago arima saldu eta *es-tablishment* bilakatzeko beharrik ere. Hori da, nire ustez, Sinn Feinen lorpen nagusietako bat. Bere burua indartu eta handitu du, gero eta instituzio gehiago modu eraginkor eta progresistan gobernatu ditu eta bere printzipioei eta izaerari eutsi die. Eta, esan bezala, gaur egungo Sinn Fein oso ezberdina da, asko handitu da, pertsona berri asko bere proiektura gehitu dira, eta pertsona horiek proiektura gehituz proiektua bera aberastu dute. Baina, hala ere, Sinn Fein berriak erre-belde eta errepublikanoa izaten jarraitzen du. Ez da *es-tablishment* bilakatu. Nazio askapen mugimenduaren izaera mantentzen du. Nahiz eta gehitu diren askok ez izan jatorri edo tradizio hori. Arima eta printzipio na-gusiak galdu edo ahazten badituzu, *establishment*are-kin jolasean, *establishment* bilakatzen bazara, zureak

egin du. Posible da zure alderdiak momentu jakin ba-tzuetan emaitza onak eskuratzea, baina ez duzu aska-pen nazional eta sozialean aurrerapauso nabarmenak egiteko gaitasuna izango.

Pepe Mujikak dio bide luzeena izaten dela maiz labu-rrena. Programa erradikalagoa plazaratzeak ez ditu al-daketa sakon eta estrukturalak bermatzen. Izan ere, norberak momentu historiko jakin batean duen indar harremanak erabakiko du aldaketaren sakontasuna. Eta norbere burua indartzeko bidean, Fronte Zabala gero eta zabalagoa bilakatzeko bidean, beti bilatu behar da izendatzaile komun txikiena. Elkarlana ezin da norbere prosizio propiotik bakarrik eraiki. Elkarla-na interes komunetan oinarritzen da. Eta horrek bidea luzatu dezake, baina hori egin gabe ez dago biderik. Kontrakoa pentsatzeak norbere mundu eta ghettoan bizitzera kondenatzen gaitu, mundu horren aldaketa sakonik burutu gabe. Joseba Sarrionandiak ederki adierazi zuen: iraultzaile batzuek iraultza egin nahi

Bere burua indartu eta handitu du, gero eta instituzio gehiago modu eraginkor eta progresistan gobernatu ditu eta bere printzipioei eta izaerari eutsi die. Hori da Sinn Feinen lorpen nagusietako bat

izaten dute; hau da, egitura politikoak aldatu nahi iza-ten dituzte. Beste batzuek iraultzaile izan nahi izaten dute, hau da, iraultzaile izatearekin nahikoa zaie.

Sinn Feinek zertan asmatu du gehien nire ustez? Bi-de pragmatiko, errealista eta eraginkorra garatu du, aldaketa jendearekin egin behar dela ulertuz, horreta-rako gero eta sektore eta jende gehiago lortu behar di-tuela ulertuz, horren mesedetan bere programa eta egiteko modua moldatuz, gero eta instituzio gehiago gobernatu, gero eta botere gehiago kudeatu, baina arima eta printzipioak indartsu mantenduz. Errebel-de eta errepublikar. Hori da nire usten Irlandaren ba-tasunerako bidea. •